

**Aurrezpen handiagoa EROSKIren fidelizazio txartelaren titularrentzat**

**EROSKI-K ETA EUSKALTELEK HITZARMEN BAT  
EGIN DUTE EROSKI CLUBEKO BAZKIDEEK  
ABANTAILA GEHIAGO IZAN DITZATEN**

- **EROSKI Clubeko bazkideek Euskaltelen edo Virgin Telcon alta ematen badute, telekomunikazioko hileroko fakturaren %4ko sarrera bat izango dute EROSKI Clubeko txartelean erosketekin trukatzeko**

Zamudio, 2021eko uztailaren 15a.- [EROSKI](#)k eta [Euskaltelek](#) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute, EROSKI Clubeko txartela duten bazkideek aurrezpen handiagoa izateko eta abantaila berriak jasotzeko.

Aliantza horri esker, Euskaltelekin eta Virgin Telcorekin kontratatzen duten EROSKIren fidelizazio programako bezeroek telekomunikazio zerbitzuaren hileroko fakturaren %4ari dagokion aurrezpen gehigarri bat izango dute. Kopuru horri dagokion zenbatekoa EROSKI Clubeko fidelizazio txartelaren saldoan sartuko da hileroko, eta taldearen saltoki sarean hurrengo erosketekin trukatzeko balioko dio. Ekimen honekin bat egin nahi dutenek alta eman beharko dute promozio honetan, webgune honen bitartez beren EROSKI Clubeko txartela lotzeko: <https://www.eroski.es/eroski-club/promocion-telefonía>

Ekimen honek berdinean balio du bai Euskalteleko bezeroentzat —EAEn eta Nafarroan— bai Virgin Telcokoentzat, baita bezero ez diren eta Euskaltelen eta Virgin Telcoren Interneteko, sakelako, telebistako nahiz finkoko zerbitzu edo packen bat kontratatzen dutenetzat ere honako webgune hauetan: <https://www.euskaltel.com/eroski> eta <https://virgintelco.es/eroski>.

Gainera, ongi-etorri promozio gisa, EROSKI Clubeko bezeroak 5 euro gehigarri izango ditu EROSKI club txartelean sustapenaren hileroko %4ko lehendabiziko sarreran.

*"EROSKI In jarraitzen dugu gure Bezero Bazkideekin dugun lotura indartzen eta aurrezpen modu berriak eskaintzen egunerokoa errazagoa suerta dakien eskaintza eskusiboekin, txartel pertsonalizatuekin eta beste abantaila askorekin. Aldi honetan, Euskaltelekin egin dugun hitzarmenari esker aurrezpena eskaini ahal dugu EROSKI Club txartelaren bitartez. Elkarrekin, bi zerbitzuren balio proposamena aberasten*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

*dugu, egunerokoak bezain ezinbestekoak direnak familientzat, hau da, elikadura eta telefonia", esan du EROSKIren Marketin Estrategikoaren arloko zuzendariak, Eva Ugartek.*

Jose Miguel Garciak, Euskaltel Taldeko ordezkari kontseilariak, berriz, honela esan du hitzarmenaren harira: *"Telekomunikazioen arloan erreferentziazko operadore garen aldetik, gure xederik gorenetako bat betetzen ari gara: bezeroa gure jardueraren erdigunean jartzea eta etengabe nolako beharrak dituen entzutea".*

Lankidetzaz hitzarmena izenpetzeko ekitaldian, Jose Miguel Garciak azaldu duenez, *"Guretzat harrotzeko modukoa da bakoitza bere arloan (hau da, banaketa komertzialean eta telekomunikazioetan) erreferente eta lider diren bi marka batzea".*

### **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Espainia iparraldeko merkatuan, besteak beste Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaiabulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere online supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

### **Euskaltel Taldeari buruz**

Euskaltel Taldea Espainiako konpainia nagusietako bat da telekomunikazioen arloan, eta era integralean erantzuten die pertsonen, erakundeen eta enpresen komunikazio beharrei. Euskaltel Taldea eta haren markak (Euskaltel EAEn, R Galizian eta Telecable Asturiasen) liderrak dira beren merkatuetan, eta tokiko inplikazio sendo bat dute; gainera, lider dira zuntz optikoan eta telekomunikazioen zerbitzu bateratuetan.

Era berean, Virgin Telco markaren bitartez, abiadura handiko banda zabala eskaintzen du, baita telekomunikazio mugikorrek (datu bolumen zabalarekin) eta telebista ere eskaintza handiarekin 23 milioi etxe baino gehiagoko merkatuan. Konpainiak soluzioak eskaintzen ditu IKTetan etxeko bezeroen eta enpresetako enpresen komunikazio ziklo osoan; gainera, zerbitzu teknologiko sorta zabal bat eskaintzen du: batetik, Internet, telefono finkoa, telefono mugikorra, telebista digitala eta banda

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



zabala, eta bestetik, eraldaeta digitalerako prozesuak, IoT soluzioak (Gauzen Internet), Adimen Artifiziala, Smart Cities teknologia eta Industria 4.0.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa